

Astekaria

Astekaria Larrun Egileak Elkarrizketatuak Gaiak Atalak Hemeroteka

Kultura

PDF BERTSIOA INPRIMATU IRUZKINAK

◉ LIBURUAK ◉

Zergatik Sarrionandiari orain arte ez diote Euskadi Saririk eman?



Gema Lasarte

2308. alea
2012-01-29



Tiroa kontzertuaren erdian :: Belén Gopegui.

Itzulpena :: Ainhoa Caballero.

Txalaparta.

112 orrialde.

16,50 euro.

Stendhalek behin baino gehiagotan aipatu zuen bere idazkuntza jardunean kontzertuaren erdiko pistola-tiroa, eta analogia egiten zuen tiro hots horren metaforaz baliaturik literatur-eleberrietan politikari buruz aritzearekin. Belén Gopeguik gogoeta hori buruan, 2006an Kaliforniako Unibertsitatean literatura eta politikaren gainean burutu zuen hizketaldia.

Hizketaldi hori ekarri digu Txalapartak oraingoan saiakera edo hausnarketa gisa, Ainhoa Caballerok egindako itzulpenaz baliaturik, eta Eider Rodriguezek hitzaurrea egin diolarik.

Zer pentsa ematen duen lana da Gopeguik eskaintzen diguna, izan ere, haren ustez politika literaturaren lepoari lotutako harria da. Eta politikaz mintzo diren eleberriek barkamena eskatzen dute. "Testuan beharrez azpitemtuan aritzen dira politikari buruz. Edo politikaren parte bat besterik ez dute ekartzen". Gopeguik dio politikara mota zehatz bat debekatu egin dela. Kontzertuan pistola-

tiroa entzutearen modukoa izango litzateke sistema berria ezarri nahian dabilzan norbanakoei buruz idaztea, "horiek totalitariotzat, gaixotzat, inozotzat, eta abartzat hartu gabe".

Eleberri-prosa bereziki egokia da pertsonaien maitasun ez-beharrak, sexu-beharrak, akatsak eta perbertsioak kontatzeko, intimitateaz ulertzen dena narratzeko. Gopeguiren hitzetan XX. mendeko eleberri guztiak gezur-itxurakoak dira, horren zioa, politikaren debekua. "Zergatik lantzen dituzte XX. mendeko eleberriek, hain zuzen, jorratzen dituzten gaiak? Diskurtso menperatzailearen jabeek egiantza bahitu dutelako".

Horratz, nola laburbiltzen duen Gopeguik eleberrietan diskurtso ezkertiarren presentzia eza. Gopeguik gonbidatzen gaitu esandako horrek zenbat duen egiatik baieztatza. Gai honek gurean badu aktualitatearik gainera, politikaz idazteaz gain, idazlearen ideologia politikoa baitago. Eta balrudike gurean ideologia ezkertiarra bakarrik dagoela, beste gainontzekoa esan gabe baitoa eta horra, Eider Rodriguezek bere hitzaurrean dioena.

Iñaki Aldekoaren Antología de la poesía (1993) jasotakoaren inguruan mintzo da Rodriguez. Aldekoak Sarrionandiaren lana poesia militantetzat eta Omar Nabarro eta Joxe Auxtin Arrietaren ahotsak konprometitutzat hartu ditu, Xabier Leteren poesia, aldiz, intimista da eta esperientzia pertsonaletik eratorritako freskuraz josia. Hau da, hiru lehen egileak ezker abertzalearekin identifikatu ohi dira; azkena ordea, Gipuzkoako Aldundiko Kultura saileko buru izan zen jeltkideek agintea zutenean.